

taxi kitto!



**ELENE ETA HAIZEA
GO!AZEN**



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia

Txikis teak

✓ - Doktore jauna! Ezin dut bururik
altxa, bakarrik egiten dut barre, ez
dut jendearekin hitz egiten.
Norbaitek hitz egiten badit ez dut
arretarik jartzen, kaikua ematen dut!
Zer daukat???

- Whatsapp!



✓ Neska txiki bat kaletik doa eta gizon
handi batekin topo egiten du:

- Aizu, jauna, esango zenidake,
mesedez, zenbat falta zaidan
metrorako?

- Ba, hamar bat zentimetro edo...



✓ Hippy
itxurako gazte
iletsua denda
batean sartzen
da:

- Praka
bakeroak nahi
ditut.

- Nolakoak nahi dituzu?
Udakoak ala negukoak,
estuak ala zabalak?

- Jantzita ditudan
bezalakoak!

- Barkatu, baina hemen
saltzen ditugunak denak
garbiak daude.



✓ Arrain batek esaten
dio besteari:

- Guk, arrainok, bi
segundoko oroimena
dugu?

- Zer?

- Zer?

Txiki's Peak



✓ Gizon bat medikuarenera joan zen eta esan zion:

- Mediku jauna, arazo larri bat daukat! Nire puzkarrek ez dute usainik!!



- Hori ez da posible! Bota ezazu oraintxe bertan bat.

- PPPPPRRRRR!!

- Hori oso larria da. Ebakuntza behar duzu!

- Ipurdian???

- Ez, gizona, ez, sudurrean!

✓ Ume batek esaten dio bere aitari:


- Aita, aita, utziko al didazu telebista ikusten?

- Bai, baina ez piztu!!!



✓ - Josetxo! Aldatu al diezu ura arrainei?

- Zera aldatuko nien! Oraindik ez dute amaitu joan zen astekoa-eta!



✓ Ume batek bere aitari:

- Nik handitan torero izan nahi dut, baina zezena nik eraman behar dut, edo han emango didate?



✓ Nola esaten da argala txineraz?

- FLA KU TXIN




✓ Ume batek lagunari:

- Nire aitak 10 urtetan ez du ilea moztu.

- Zer da ba? Artista?

- Ez, burusoila!



✓ - Zergatik darama txakurrak hezurra ahoan?

- Ez duelako poltsikorik!



✓ Jaimito eta andereñoa:

- Jaimito, badakizu igeri egiten?

- Bai andereño!


- Non ikasi duzu?

- URETAN!!



Denborapasak

Labirintoa




Zazpi desberdintasunak



Koloreatu

1. Laranja
2. Marroia
3. Gorria
4. Horia
5. Berdea
6. Arrosa
7. Urdina






AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **IRATI DORRIO** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta Coliseoan “Goazen” ikusteko 4 sarrera eraman ditu Iratik etxera. Zorionak!



7 desberdintasunak



**BIDALI ERANTZUNAK OTSAILAK 21 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena


AdinaTel.....

Denborapasak

Zazpi desberdintasunak




Labirintoa



Nahia Eguren

Labirintoa



Paule Badiola



IZENAK PAULA ETA AITANA

ABIZENA Etxeberria

JAIOTERRIA Ordizia

JAIOTEGUNA Ekainak 10

- Itsasoa ala mendia? Neguan mendia, udan itsasoa.
- Gazia ala gozoa? Gozoa.
- Telebistako saio bat? Goazen.
- Uda ala negua? Uda.
- Dantza egiteko lekurik onena? Etxea.
- Kolore bat? Paula: berdea. Aitana: horia.
- Animalia bat? Paula: txakurra. Aitana: katua.
- Ametsetako oporrak nora? Hawaii.
- Umetan udalekuetara joaten zineten? Bai, 5 aldiz egon gara, ingeles eta frantsesezkoetan.
- Zer 3 gauza eramango zenituzkete irla batera? Labana, janari asko eta etxea.
- Kontatu gertatu zaizuen gauza barregarri bat: Antzerkian Paula erosi egin zela.
- Birziklatzen duzue? Bai.
- Euskara osasuntsu dago? Nahi baino gutxiago.
- Zer egin bultzatzeko? Eskoletan eta familietan erabili eta bultzatu.
- Euskaldunak dantzari onak gara? Bai.
- Zerk pozten zaitue? Abesteak, dantzatzeak eta lagunekin egoteak.
- Zerk haserretu? Bizitzako injustiziek.
- Abesti bat? It was beautiful.
- Umetan gehien gustatzen zitzaizuen irakasgaia? Paula: euskera. Aitana: geografia.
- Eta gutxien? Matematikak.
- Nolakoa da zuen egun perfektua? Deskantsatu, abestu eta Goazeneko antzerkia egiten dugunean.
- Gogoan duzuen egunik onena? Familia eta lagunekin gauden edozein egun.
- Txisteak kontatu ala entzun? Entzun.
- Jatekorik gustokoena? Paula: xerra patatekin eta purea. Aitana: purea.
- Gutxien gustatzen zaizuen? Paula: lekak. Aitana: ketchup.
- Basakabiko gauzarik onena? Esperientzia eta lagunak egitea.
- Eta txarrena? Lo gutxi egitea.
- Zer ikusiko dute Eibarren zuek ikustera doazenek? Antzerki polita.
- Aktore ez bazinate, zer izango zinatekete? Abeslari.

PAULA / AITANA

Datorren otsailaren 11n Eibarren izango ditugu Goazen teleaileko neska-mutilak. Bi saio eskainiko dituzte Coliseoan, 15:00etan bata eta 17:00etan bestea. Ume eta gazteen artean arrakasta itzela lortu dute Basakabiko abeslari/dantzariak eta Txikitto!-k eurekin hitz egiteko aukera izan du. Zintzo-zintzo erantzun diete guk egindako galderei, baina bakarria sartu behar genuenez, zozketa egin eta goian dituzue Haizea eta Elene bikien erantzunak.

Ongi etorri Eibarrera!

Berba hori erabiltzen dugu gutako baten baten etxera datorrenari esateko, ezta? Ba horixe da, hain zuzen, kanpotik Eibarrera datozeni esan nahi dieguna. Ongi etorri!

Eibar, gure herria, betidanik izan da anfitrioi ona. Eibartarrok atseginez eta begirunez hartu izan ditugu kanpotik zetozenak, eta azkeneko urteetan, etorrera hori handitzeaz gainera, kolorez ere jantzi da. Jaioterri eta kultura ezberdinetako jende ugari ikusten dugu gure herriko kaleetan. Eta eurak eta gure arteko elkarbizitza erraztu eta hobetze aldera, ... eta kitto! Euskara Elkarteak Ongi Etorri Berbetanera izeneko programa berria jarri du martxan, Eibarko Udalarekin batera.

Helburua zein da? Eibartarron ohiturak, hizkuntza eta kultura etorkinei ezagutaraztea, hau da, nora datozen eta bertan zer aurkituko duten,



euskarara nola hurbildu eta gure herrian nola integratu daitezkeen erakustea. Horrekin batera, guk ere, eurenak ezagutzeko aukera izango dugu, elkartrukea izango da-eta.

Denon premia du programa honek, bertokoena zein etorkinena. Zuek, umeak, gaztetxoegiak zarete izena emateko baina etxekoei esan animatzeko. Informazioa nahi izanez gero ... etakitto!-ra deitu daiteke (943200918). Taldeak Urki, Urkizu eta Amañako auzoetan elkartzen dira bi astetik behin.



Umeak beti ume, han eta hemen

Eta esaldi hori kontuan hartuta iragarri nahi dizuegu datorren Txikitto!-tik aurrera atal berezi bat sortuko dugula, Munduko Jolasak izenekoak. Bertan, munduko bazterretako jolasak proposatuko dizkizuegu. Gurasoak askotan kexu gara gaur egungo umeek jada ez duzelako jolasetara jolasten. Ba, atal berri horren laguntzarekin ez duzue aitzakiarik izango. Hurrengo aletik aurrera izango da hori.



Urtero moduan, aurren ere, liburutegiko saioetan Euskal Mitologiari tartetxo bat eman diogu **ITURBURU**ko ikasleek. Maila guztietako haurrek gozatzen dute jeinu horien istorioak eta ezaugarriak entzuten eta irakurtzen. Pertsonaia gehienak ezagunak izan arren, berriak ere agertu zaizkie, esate baterako: Inguma, Gizotso edo Mateo Txistu.

Argazkietan 4. mailako ikasle batzuk ipuina entzun eta irakurri ondoren, pertsonaiak margotzen.



Urte Berri on denoi, **ARRATEKO ANDRA MARI** ikastetxetik! Atzean gelditu dira oporrak eta lanean murgilduta gaude jada. Urtarrilaren 27an LHko 3. zikloko ikasleak San Andres eskolara joan ziren antzerki bat ikustera.

Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era arte matrikulazio-garaia izango denez, gure eskolako atea zabalik egongo dira ikastetxea ezagutu nahi duten guztientzat. Urtarrilaren 30ean, 6. mailako ikasleak eta euren gurasoak Mogel Isasira joan ziren ikastetxea ezagutzera. Horrez gain, gure eskolako guraso taldetxo bat, asteartero eta ostegunero elkartzen da, 09:00etatik 11:30era, euskara ikasteko eskolan bertan, eta Huhezi-ren laguntzarekin, Aniztasunaren inguruan aurrera eramaten ari garen proiektuan ere parte hartzen ari dira.



SAN ANDRES ikastetxeetako hiru egun egon ziren Aroz Eneako barnetegian, Etxarri Larraunen, Nafarroan, eta oso ondo pasatu zuten.



LA SALLE ikastetxean Bakearen Astea ospatu dugu. Asteazkenean zehar egunero gogoetatxo batekin ekin diogu egunari eta ostiralean eskolan ospakizuna egin genuen. Orain aratosteak prestatzen ari gara buru-belarri.



AMAÑA Ikastetxeko 6. mailako ikasleak ingeleseko barnetegian egon ziren urtarrilaren 16tik 20ra. Barnetegia Nafarroako Beire herrian dago eta bertan primeran pasatu zuten. Nahiz eta eguraldi hotza eduki, ez zen oztopoa izan hainbat tailer, jolas, ekintza... burutzeko eta ingelese ikasteaz gain lagun berriak egiteko.



KANDELA-ONTZI BIRZIKLATUA

Birziklatutako materialekin kandela-ontzi polita eta berezia egingo duzue; ondorengo pausoak jarraitu besterik ez duzue egin behar. Guk kandela-ontzi moduan proposatzen dugu, baina bitxiak edo bestelakoak gordetzeko ontzi moduan erabiltzeko ere egin dezakezue.

MATERIALA

- ✓ CD bat.
- ✓ Kanika-poltsa bat.
- ✓ Itsasgarria.



PAUSOAK

- 1.- CD-a hartu eta itsatsi kaniken lehenengo ilara. Itsasgarri larregirik ez eman, kanikak ez daitezzen zikindu. Behin lehenengo buelta amaituta utzi lehortzen.
- 2.- Bigarren ilara egiteko gauza bera, eta behin bigarren ilara lehortu denean hirugarrena egin. Nahi beste ilara egin ditzakezue, altuagoa edo baxuagoa, nahi duzuenaren arabera.
- 3.- Zirkulua biribil-biribila izateko botila bat jar dezakezue erdian laguntzeko.
- 4.- Kandela txiki bat jarri erdian eta piztu.

Ti-ta!

GLOBO-PANPINAK

Sartu globoa inbutuaren ahoan. Arkatz batez lagundurik irina globoaren barruan sartzen joan. Globoa luzatu irin guztia sartzeko. Ahalik eta irin gehien sartu, baina kontuz, eztanda egin gabe. Globoa beteta dagoenean inbutua atera, soberako airea kendu eta korapiloa egin. Begi mugikorak itsatsi eta listo! Nahi duzuen itxura eman ahal diozue aurpegitxoari.



HARAGIZKO BOLATXOAK

Zartagina eta labea erabili beharko dituzue, heldu batekin egin ezazue errezeta hau.

OSAGIAK (4 LAGUNENTZAT):

- ✓ Pizza-masa freskoa
- ✓ 400 gr haragi xehatu
- ✓ Tipula bat
- ✓ Oliba-olioa
- ✓ Gatza
- ✓ Piperbeltza
- ✓ Tomate frijitua
- ✓ 100 ml ardo txuri
- ✓ 150 gr mozzarella-gazta birrindu
- ✓ Azeituna beltzak

PAUSOAK

- 1.- Zartaginean olio berotu eta txiki-txiki moztutako tipula jarri. Bitartean gatz eta piperbeltza bota haragiari, eta tipulak urre kolorea hartu duenean gehitu haragia. Utzi sutan.
- 2.- Gehitu gazta eta ardoa, eta ardoa lurrundu denean haragia prest egongo da.
- 3.- Sukaldeko mahaiaren gainean zabaldu pizzaren masa eta zati txikiak egin, irudikoak bezalakoak. Haragi pixkat jarri erdian eta itxi bolatxoak.
- 4.- Labea aurrez berotu 180 gradu eta labeko paperaren gainean joan bolatxoak jartzen. Tomatea eta azeituna jarri gainean eta berotu 30 minutuz 180 gradutan, bolatxoek urre kolorea izan arte.



MARRUBIZKO MOUSSEA



Marrubiak, esne-gain harrotua, azukre pixka bat eta esnea. Horixe besterik ez duzue beharko errezeta gozo, fresko eta erraz hau egiteko. Irabiagailuarekin nahastu marrubiak, esne-gaina eta azukrea. Ondo nahastu dena eta sartu hozkailuan 20 minutu. Bol edo katilu batera bota eta apaindu nahi duzuen bezala.



ARATOSTEAK EIBARREN

“Aratosteetako koadrilen kalejira” lehiaketa otsailaren 25ean, zapatua, 13:00ean.
Izen-ematea otsailaren 9tik 23ra Pegoran.

Otsailak 18, zapatua

Koko-dantzak eta koko-eskea

08:30: Lehen agerraldia merkatu plazan.

09:00-16:00: Mandiola eta Gorosta auzoetako baserrietan jardungo dute.

19:00-21:00: Koko-dantzak Eibarko kaleetan.



Otsailak 23, Eguen Zuri

15:30: Eskoletako ikasleen kalejirak.

17:00: Urkizutik Untzagaraino kalejira, Jainaga eta Narbaizaren eskutik. Untzagan dantzaldia Lisker taldearekin.

17:00-19:00: Tailerrak Untzagan. Beldurrezko kareta eta makillajea Astixaren eskutik.



Otsailak 24, Aratoste Barixakua

20:00: Urkizutik Untzagaraino Kaldereroen kalejira.

20:30: Kaldereroen abestiak eta dantzak Untzagan. eta ondoren Aratosteetako Pregoia.



Otsailak 25, Aratoste Zapatua

12:00: Animazioa Aratosteetako karpan.


12:30-14:00: Rockalean emanaldia Untzagan.

13:00: Aratosteetako koadrilen kalejira. Sari-banaketa 19:00etan karpan.

17:00: Mozorro-lehiaketa Galiziako etxean.

18:30-20:30: Umeentzako berbena Karpan, Alaiki taldearen eskutik.

18:00-20:00: Brass Band kalejira.



Otsailak 26, Aratoste Domeka

17:00: Play Back lehiaketa LH 5 eta 6. Karpan. Ondoren DJ Arno.



Otsailak 28, Aratoste Martitzena

17:00-18:30: Umeentzako jolasak Untzagan.

18:30: Sardinaren entierru txikia.

18:30: Umeentzako diskoteka Karpan Arima Cool Tour taldearekin.



✓ Otsailak 3, barixakua

San Blas opilen lehiaketa. 17:00etatik 19:00etara Arrateko Kultur Elkarteko Topalekuan entregatu beharko dira. Ebazpena 20:00etan.


✓ Otsailak 4, zapatua

Santa Ageda batzen. 19:00etatik aurrera. Sostoa Abesbatza eta Musika Eskolako trikitilariak.

✓ Otsailak 17, barixakua

Biolin eta piano kontzertua. Nerea Arriola eta Esther Barandiaran. 20:30ean Coliseoan.

Air Hockey txapelketa Jazinto Olabe ludotekan 18:00etan. LHko 3,4,5 eta 6.



GIOSEPPOREN SUDURRA (6 urtetik aurrera)

Gioseppo oso zapatari serioa zen. Halako batean, grano bat atera zaio sudurraren puntan, bitxi-bitxia: pinportatxoa. Beldurtu eta ospitalera joango da, eta medikuak esango dio tumore bat atera zaiola, tumore on bat. Handik aurrera, bere sudurrarekin ospitaleko haurrak alaituko ditu.




ADA GOTH ETA SAGU MAMUA (8 urtetik aurrera)

Ada Goth neskatoa Ilunpe Jauregi bitxian bizi da bere aitarekin, edonolako zerbitzariekin, eta, gutxienez, dozena erdi bat mamurekin. Baina Adak ez dauka lagunik bere etxe erraldoiko txoko sakonak eta misterioitsuak haiekin aztertzeko. Egun batean Ismael ezagutuko du, usaimenik eta goserik gabeko sagu mamua. Biak elkarrekin...




GURARIEN HARRIA (10 urtetik aurrera)

Gasteizen, XIV. mendean egiten ziren hainbat lanbideren berri ematen digu istorio honek eta aldi berean erakutsiko digu desioak betetzeko magiarik eraginkorrena norbere buruarenganako konfiantza eta lana direla.



AI, XIMUN, XIMUN! (6 urtetik aurrera)

Txirrixt sagua munduko animalia guztien lehendakaria da, eta Burkail Zuri izeneko mendi erraldoiaren oinera deitu ditu animalien ordezkariak, batzar horretan garrantzizko gauza bat erabakitzeko. Ximun mutikoa beldurrak airean dago. Zertarako elkartu ote ditu Txirrixtek animalia guztiak?



KARTOIZKO KAJA (8 urtetik aurrera)

Langile batzuk iritsi dira etxera, apalategi bat muntatzera; kartoizko kaja handi batean zetorren materiala, eta kaja hori beretzat gordetzen du Anartzek, jolasetarako tresna ezin hobea delako: baleontzi bihurtzeko edo estraterrestreen espaziontzi, Afrikako oihana nahiz lurra lantzeko traktore...



JAUREGIKO SEKRETUA (10 urtetik aurrera)

Zergatik egin behar dugu beti nagusiei sudur puntan jartzen zaiena? Gure ama sarjentuak erabaki du, aurtan, Otxanten igaro behar ditugula oporrak, aitona-amonak zaintzen. Tximeleta bat basamortuan baino gehiago aspertuko naiz, hemen umeak koadroetan baino ez direlako existitzen. Hori uste nuen jauregikoak euren ume bereziarekin etorri direla entzun dudan arte. Amonak esan dio amari, sekretuan...



Lainoek izotza dute barruan, baita udan ere. Izotz gehiena urtu egiten da lurrera erortzean, txingorra egiten duenean izan ezik.



Kairo hiria da Afrikako handiena. 10 milioi biztanle inguru ditu.



Hosto gehien kontatu zaizkion trebolak 56 zituen. Japonian aurkitu zuten, 2009. urtean.



Saguzarrak ziren Zeelanda Berrian bizi ziren ugaztun bakarrak, jendeak ardiak eta bestelako animaliak eramaten hasi zen arte.



Bost ametsetatik lau koloretan dira, baina pertsona batzuek zuri-beltzean bakarrik egiten dute amets.



Itsaso Hila izenekoan lasai asko egin daiteke igerian eta baita egunkaria irakurri ere. Bertoko ura oso gazia da, eta egiten duzuna eginda ere flotatu egingo duzu.



Ilargian erabateko isiltasuna dago. Airerik ez dago, eta beraz, soinua ezin da transmititu.



Landare askok dituzten substantziak gaixotasunen kontrako botika moduan erabil daitezke.



Islandia izena entzuten dugunean hotz izugarria etortzen zaigu burura. Ba jakizue, ehundaka sumendi daudela eta batzuetan etxeek su hartzen dutela labaren ondorioz.



Hegaztirik pisutsuena eta handiena ostruka da. Autobus bat bezain altua da.



Iman bat bi zatitan mozten baduzu bi iman izango dituzu. Iman bakoitzak bi polo izango ditu, ipar eta hegoa.




Animaliek ere amets egiten dute. Txakurrek, amets egiterakoan, ehizan ibiliko balira moduan mugitzen dira, eta soinu ezberdinak egiten dituzte.



DENBORAN ZEHAR

Julen txikia zenean, aitonak kontatzen zion bera txikia zenean gauza garrantzitsu bat zegoela basoan. Orduan Julenek esan zuen haundia egiten zenean gauza garrantzitsu hori aurkitu eta erabiliko zuela, nahiz eta ez jakin zer zen. Julenek 12 urte egin zituen eta eskolan basoari buruzko lan bat egin behar zuen. Horregatik, egun batean, basora joan zen. Eta han, zuhaitzen artean, esfera moduko gauza txiki bat aurkitu zuen, pixkat apurtuta zegoen. Konpontzea pentsatu zuen. Bukatu zuenean argi moduko bat piztu zen.




Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



Julen, argi hori ikutzean, 1907. urtera joan zen. Hara ailegatzean Picasso ezagutu zuen eta harekin margo-lan asko egin zituen. Astebete pasa eta gero bere etxera joateko gogoan zuen. Baina ez zekien nola. Makinaren atzekaldean orri bat zegoen, letra askorekin. Julenek irakurri egin zuen eta nola bueltatu jartzen zuen. Baina gero, nahi gabe, 2047. urtera abiatu zen. Han bere ezkontza ikusi zuen, gustoko zuen neskarekin. Oso pozik jarri zen hori jakitean.

Bere urtera joan zen eta aitonari abentura guztiak kontatu zizkion. Eta aitonak barre egin zuen eta esan zion berak ere makina hori aurkitu zuela txikitik baina etxerako bidaian makina apurtu zela.

Txapeldunak



zu margolari!